JARRAIBIDEA, 2026KO URRIAREN 20EKOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, NORBERE BORONDATEZ LANA UZTEN DEN KASUETAN HARTU GABEKO OPORRAK HARTZEKO FUNTZIONARIOEI APLIKATU BEHARREKO IRIZPIDEAK ZEHAZTEN DITUENA.

252/2025 DEKRETUA, abenduaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioa onartzen duena. 27. artikuluan honako hau ezartzen du:

27. artikulua.– Oporrak.

Irakasle funtzionarioek hogeita bi egun balioduneko oporraldi ordaindua hartzeko eskubidea izango dute. Aldi hori zerbitzuak eman diren ikasturte oso bakoitzeko aplikatuko da. Lan egindako egunek ikasturte osoa hartzen ez badute, ordaindutako oporrak lan egindako denboraren proportzioan zehaztuko dira. Artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, larunbatak ez dira egun balioduntzat hartuko.

Oporraldi hori urte bakoitzeko abuztuan hartuko da. Funtzionarioak aldi baterako ezintasun-egoeran edo antzeko egoeran egoteagatik hilabete horretan hartu ez diren oporrak etenik gabe hartuko dira egoera hori amaitu eta berehala, dagozkion egunetan. Nolanahi ere, oporrak hartzeko eskubidea baliatzeko abuztuko opor-egunak zenbatu behar ziren egunetik gehienez ere 18 hilabeteko epea izango da. 18 hilabete igaro ondoren, eskubide hori bertan behera geratuko da.

EPOEk hau dio 50. artikuluan:

50. artikulua. Funtzionario publikoen oporrak.

3. Funtzionario publikoen urteko oporraldi ordaindua ezin da ordezkatu zenbateko ekonomiko batekin.

Norberak, bere borondatez lana uztea eskatzen duen kasuetan sortutako eta disfrutatu gabeko oporrak bere azken lan egunaren aurreko egunetan jarraian hartu beharko ditu, etenik gabe, dagozkion egunetan, bere azken lan eguna eta azken opor eguna berdina izanik.

Opor-egunak baliatzea eta zerbitzuak behar bezala funtzionatzea bermatzeko, interesdunak borondatezko lan etetea eskatu, eta gehienez 24 orduko epean, dagozkion opor-egunak baliatu nahi dituela adierazi beharko du, bere laneko azken egunaren aurreko egunetan eten edo tarterik gabe.

Oporrak disfrutatzeko eskaria egin eta hurrengo egunetik hasi ahalko da opor egunak disfrutatzen, beti ere bere lan zentroko zuzendaritzari aurreko lan eguneko 14:00 baino lehen ez dela lanera joango jakinarazi badio interesdunak.

Interesdunak oporrak disfrutatzeko eskaria egin eta hurrengo egunetik bere azken lan egunera dauden lan egunak baino opor egun gehiagorako eskubidea izango balu, bere lan uzteko eguna atzeratu ahal izango du opor egun guztiak disfrutatu ahal izateko; edo lana uzteko hasierako data mantendu eta disfrutatu ezin dituen opor egunak galdu.

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

Izan ere, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak adierazi bezala oporraldi egunak ez dira ordezkatuko zenbateko ekonomiko batekin, eta langileak ezarritako azken lan egunaren ondorioz disfrutatu ez dituen egunak galduko ditu, eta ez du inongo konpentsaziorik jasoko salbu 252/2025 Dekretuaren 27. artikuluan eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 50. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Laburbilduz langileak honako pausu hauek jarraitu beharko ditu nahi eta nahi ez, opor egunak disfrutatu ahal izateko:

- Borondateko lan etetearen data Tramitagune bidez komunikatzea.
- Aurreko puntuko eskaria egin eta gehienez 24 orduko epean egin beharko du oporrak hartzeko eskaria, dagokion medioaren bidez (gaur egun Tramitagune bidez).
- Zentroko zuzendaritzari jakinarazi beharko dio bere ez dela lanera joango lehen opor egunaren aurreko lan eguneko 14:00ak baino lehen.
- Langileak oporren hasiera-dataren eta eskatutako uzte-dataren artean dauden lan egunak soilik hartu ahal izango ditu opor egun bezala.

Vitoria-Gasteizen, instrukzioa sinatzen den egunean.

Unai Nieto Marijuan

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA